



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko urria · 368 alea

TOKIKOM

BAKEA BEHAR DUGU



EUSKARALDIA
BIZITZEKO PREST?



EUSKARALDIA BERTAN DA



PIL-PILEAN 368

2020ko urria

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Aidor Aizpuru eta Agustín Jauntsarats
 - 6 **Begira** Udazkeneko koloreak
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 18 **Argazki bidez** Kontrargiren iazko Argazki Rallyko argazki baloratuenak
 - 22 **Erreportajea** Euskaraldia
 - 29 **Kirola** Neurri berriak
 - 30 **Plazan bazan** Umeendako jolasak
 - 32 **Kultura** Blues jaialdia
 - 36 **Sakonean** Plazentziar jatorriko txakolina
 - 38 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
- 3 **Neuretik** Roman Olaizola *Wellington*
 - 20 **Gutunak** Marimar Deza *Autobusa ez zen Soraluzera sartu.*
 - 21 **Zir(r)ika** Berba egiteak laguntzen du
 - 21 **Puntua** Paula Alonso *Hiriko argi-ilunak.*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Wellington



ROMAN OLAIZOLA

Abuztuaren 31, abuztuko azken eguna eta Donostiako sutearen urteurrena izateaz gain, oporrak amaitu direla gogorarazten didan eguna da. Oroitzapen horri dagokionez, aurrez aipatutakoa datorkit burura: Donostiako sutea eta nola 1813an Donostiako biztanleak suntsitu, hil eta bortxatu zituzten; eta horrek, elur-bola baten efektuz bezala, pentsatzera narama nor izan ote zen sarraski horren erantzulea..

"Jaun" hori (nolabait izendatzearen), Wellingtono dukea izan zen. Britainiar eta portugaldar konbinatu baten eta europar mertzenario batzuen buru jarrita, botina eskuratzea beste nahirik gabe, nahieran erre, hil eta bortxatu zituzten donostiarrak. Sarraskiak zortzi egun iraun zituen, 850 eta 1000 zibil artean hil ziren, ia emakume guztiak bortxatu zituzten, hiria erre zuten 600 etxe baino gehiago kiskalita. Ondoren, dukeak berak, ukatu egin zuen biziraun zuten herritarrei 2000 janari errazio ematea, gainera, ez zezatela molestatu eskatuz.

Bada, elur-bolaren efektuarekin jarraituz, nire buruari galdetzen diot nola den posible Gasteizko Udalak Juan Carlos I.ari kale bat kentzea, eta ni bat nator erabaki horrekin eta hedatu ere egingo nuke (izan ere, ez dago kalerik soldatzaile bakar bati eskainita, nahiz eta errespetu bera merezi) eta, hala ere, Wellingtono Dukeari eskainitakoa mantentzea. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza dago bertan.

Badakit memoria historikoari dagokionez asko dagoela egiteko, baina argi daukat memoria historikoa ez zela 1936an hasi eta 1939an amaitu, argi dudan bezala, Juan Carlos I.a Wellingtono Dukearen aldean santu bat dela.

Sutearen ostean, elite donostiarrak hiri berria diseinatu zuten Zubieta auzoko baserri batean, eta orain Gipuzkoako agintariak erraustegi bat jarri dute bertan, beharbada Donostiaren sorreran auzoak egin zuen ekarpena aitortzeko.

Ondorioz, ideia bat bururatu zait: Gasteizko Wellingtono dukeari kalea kentzea eta inor mindu ez dadin, are gutxiago Ingalaterrako Isabel erregina, Zubietako erraustegiari deitzea "Wellingtono Dukearen erraustegia".

Bada liburu gomendagarri bat gai hau ulertzeko baliagarri dena: "La Brecha", Toti Martínez de Lecearena.

**DONOSTIAKO
BIZTANLEAK
SUNTSITU, HIL ETA
BORTXATU EGIN
ZITUZTEN 1813AN**

“Poza ematen du ikusteak zer egin dezakegun”

AIDOR AIZPURU ETA AGUSTIN JAUNTSARATS MARGOLARIAK

UBANE MADERA

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI

Aidor Aizpuruk (Soraluze, 1978) eta Agustín Jauntsaratsek (Soraluze, 1958) margolanen erakusketa ipiniko dute azaroaren 16tik 28ra bitartean, Erakusketa Gelan; bi margolariak dira Krabelin Pintura Eskolako ikasleak.

Zelako margolanak ipiniko dituzue?

Agustín Jauntsarats (A.J.): Hainbat urtetakoak. Batzuk hiperrealismo sasoikoak, beste batzuk abstraktuak... denetik, horrenbeste ditut...

Aidor Aizpuru (A.A.): 9 margolan ipiniko ditut. Nik hiperrealismoa lantzen dut.

Zailtasunak dituzue ohiko bizimodurako; margotzeko ere bai?

A.J. Nik ez. Fisikoak, bakarrik, lokalera joateko. Bestela, eskuak ondo ditut.

A.A.: Hasieran, pintzelak oratzeko arazoak nituen, baina poliki-poliki truko batzuk hartu ditut. Egin eta egin eta lortu egiten duzu.

Noiztik margotzen duzue?

A.J. Mutikotatik margotzen eta marrazten dut. Etenaldiekin. Soraluzen pintura eskola dagoenetik (kiroldegian zegoenetik) bertan nabil. Teknika desberdinak ikasteko hasi nintzen, olioia, akuarela...

A.A. Pintura eskolara joan aurretik ere gustuko nuen margotzea, baina sekula ez nuke pentsatuko olioan margotuko nukeenik. Probatzea pentsatu nuen eta orain dela 9 urte pintura eskolan hasi nintzen, oinarri-oinarrizko gauzak probatzen. Harrezkero oso gustura nabil. Erakusketa honen bitartez erakutsi nahi dut, baita ere, ezintasunak izan arren gauzak lor daitezkeela.

Zer ematen dizue margotzeak?

A.J. Poza ematen dit ikusteak zer egin dezakedan. Margotzen nabilenean arazo guztiak ahaztu egiten ditut, fisikoak eta bestelakoak. Ez dizkiot buruari bueltak ematen.

A.A. Lasaitasuna ematen dit, baita poztasuna ere, ikusten dudalako zerbait lortzen dudala.

Zer gustatzen zaizue margotzea?

A.J. Gustuko dudan lekuren bat ikusten badut, argazkia atera eta hori margotzen dut. Azken

boladan, abstraktua lantzen dut gehiago. Noizbehinka errealista batzuk egiten ditut. Baina urteekin pazientzia galtzen ari naiz. Orain brotxa bizkorrekoa naiz. Ez dut gustuko lan batekin denbora luzea ematea. Bestalde, lanen %80 olioan egin ditut, baina denetik probatu dut: akuarela, pastelak, ikatz-margoak...

A.A. Herriak eta paisaiak. Kostaldeko inguruak oso politak dira, itsasoaren koloreak: urdintasuna eta berdeak... Bospasei hilabete ematen dut margolan batekin; erlaxatu egiten nau.

Zenbat margolan egin dituzue?

A.J. 40-50... Sakabanatuta ditut, ez dakit zenbat ditudan.

A.A. 15 bat izango dira.

Egindakoen artetik baduzue gustukoren bat?

A.J. Bai. Pare bat edo. Etxean lekua dute, niretzat nahi ditut; ondo pasatu dudalako margotzen edo, beste, barik gustuko dudalako. Eskolan hasi nintzeneko pare bat eta egin ditudan azken abstrakturen bat edo beste dira.

A.A. Bizpahiru bai. Bata da Getariari buruzkoa. Egin nuen lehenengoetarikoa. Beste bat Soraluzekoa, hiru zatitan dago banatuta. Getariakoa hango Saiaz hotelean dago erakusten. Ea han ipintzea nahi nuen esan zidaten eta han dago orain dela pare bat hilabete. Laster ekarriko dut, hemengo erakusketan ipintzeko.

Saltzen dituzue margolanik?

A.J. Bat edo bi saldu izan ditut, baina gehienak oparitu egin ditut. Erakusketan norbaitek nahi badu, salduko diot... Hartara, etxean lekua egingo dut eta margotzeko materiala erosteko dirua eskuratuko dut, zaletasun garestia da eta.

A.A. Nik ez dut saldu. Oparitu egin izan ditut, baina gutxi ditut. Orain ere ez ditut salduko. Eskaini izan didate dirua, baina margolanek barne-poza ematen didate.

Besterik nahi baduzue gaineratu...

A.J. eta A.A. Herriko pintura eskola ez galtzea, gazteen artean dagoen zaletasuna mantentzeko eta gazteek aukera hori izan dezaten. Eibarren, adibidez, pintura eskola munizipala dago.



Udazkeneko koloreak

ARGAZKIA: MIKEL VALERO

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Postala dirudi Mikel Valeroren argazkiak. Untzeta aldetik aterata dago. Udazkeneko Koloreak izenburua jarri dio. Izan ere, halakoak ditu: mendiaren berdetasuna eta euria eta eguzkia elkartzen direnean sortzen duten ostadarra. Bitxikeria moduan, ostadarra, denbora luzez, gertaera harrigarria zein beldurgarria izan zen. Batzuetan, iragarpen ekarle bezala, bestetan elezaharren inspiratzaile bezala edo artelan bezala, baina beti izan da miragarria gizakiarentzat. Horregatik edo, argi-arku hori izendatzeko izen ugari daude euskaraz: Ostadarra, uztargia, ostarkua, ortzadarra, ostilika edo Erromako zubia.



Egun erabakigarriak

Datozen egunetako joerak baldintzatuko du gertuen dugun etorkizuna, Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriek espero diren emaitzak eman ezean, neurriak gogortu egingo baitira.

Aste honetan, alarma egoeran sartu gara, sei hilabeterako. Gainera, astelehenaz geroztik, herritarren mugikortasuna nabarmen baldintzatzen duten neurri murriztaileak daude indarrean, hasiera batean 15 egunerako, baina astetik atera egoera oso aldakorra ari da izaten eta neurriak eurak ere aldatu egiten dituzte.

Edozelan ere, orain indarrean dauden artean, bi nabarmen dira: norbere udalerritik ezin irtetea, salbuespenekin, eta etxeratze agindua, 23:00etatik 06:00etara.

Espainiako zein Euskadiko gobernuek, biek azpimarratu dute hartutako erabakiek COVID-19 koronabirusaren kutsatzeak geldiarazteko helburua dutela.

Izan ere, Osakidetza, COVID-19aren kutsatze-maila neurgailu modura erabilia, gorritz markatuta ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldetatik bi: Gipuzkoa eta Bizkaia. Gainera, Gipuzkoako udalerrri gehienak daude gorri, baita Soraluze ere.

Birusa azkar hedatzen

Urriaren 14tik 28ra bitarteko datuen arabera, udalerrian, 67 soraluzetarrek positibo eman dute PCR probetan. Gainera,

azken bi asteotan nabarmen handitu da kutsatu kopurua.

Konparazioa egitearren, urriaren 1etik 14ra bitartean, 15 positibo atzeman zituzten. Pandemia hasieratik, berriz, martxoaren 1etik, guztira, 145 positibo kontabilizatu dituzte. Beraz, azken bi asteotan atzeman dituzte positiboek kopuru osoaren ia erdia.


Ingurura begiratuta, beste pare bat adibide, konparatzeko: Eibarren 15 egunetan 264 positibo hauteman dituzte, 966, martxoaren 1etik; Deban, berriz, 47 positibo 15 egunetan, 193 martxoaren 1etik.

Egoitza eta Eguneko Zentroa

Bestalde, egoeraren ondorioz, herrian hainbat jarduera bertan behera gelditu dira. Besteak beste, honakoak: 80 urtetik gorako omenaldia, Itxaropena elkartearen egitekoa zen Informatika tailerra, Amari ekimenaren aurrez aurreko saioak (telematikoki segituko dute) eta pentsioen aldeko asteleheneroko elkarretaratzeak (aldarrikapenak Plaentxia.eus atariaren bitartez helaraziko dituzte).

Ikastetxeak eta musika eskola

Ikastetxeei dagokienez, Haurreskola urriaren 14an



Anbulatoriokio sarrera.

zabaldu zuten berriro ere, irailaren amaieratik berrogeialdian egon ondoren.

Plaentxi Herri Ikastetxean, berriz, hainbat ikasle berrogeialdian dira edo izan dira, baina ez dute ikasgelarik itxi, are gutxiago ikastetxea. Berrogeialdian dauden ikasleei (gaixorik ez badaude) telematikoki zerbitzua eskaintzen ari dira.

Soraluze BHI Instituari dagokionez, han ere hainbat ikasle berrogeialdian dira, baina gainerakoan, normal ari dira aurrez aurreko eskolak ematen. Han ere, etxean daudenei classroom bitartez ematen diete hezkuntza zerbitzua.

Azkenik, egoera berean da Soraluze Musika Eskola: aurrez aurreko eskolekin segitzen dute, baina hainbat ikasle online eskolak jasotzen ari dira, berrogeialdian daudelako.

**HERRIKO IKASTETXEEK
AURREZ AURREKO
JARDUERAREKIN
SEGITZEN DUTE,
ORAINGOZ**

Gurasoak hurbiltzeko saioa

Hurbiltzen izeneko egitasmo pilotua jarri dute martxan Pil-pileanek eta Udalak.



Urrian hasi eta abendura bitartean, Hurbiltzen, gurasoak euskararen inguruan batzeko egitasmo pilotua egingo da herrian, Pil-pileanek eta Udalak babestuta. Astean behin familia euskaldunak eta ez euskaldunak elkartu eta harremanetan jartzea izango da dinamikaren ardatza.

Egitasmoaren dinamizatzailea Arrate Espilla soraluzetarra izango da eta egitasmoan parte hartu nahi duten familiek 609 28 77 39 telefonora deituta edo arrate@pilpilean.eus helbidera idatzita eman ahalko dute izena. Familia euskaldunek, elebidunek zein erdaldunek eman dezakete izena.

Elkarfunding ekimena

COVID-19aren eraginez Santa Ana jaietako txosna ez ipintzeak “elkartasun ekonomikoa bideratzeko bide berriak” abiaraztera eroan du Soraluzeko Presoen Aldeko Txosna Batzordea. Elkarfunding ekimenaren bidez, presoen senideei laguntzeko dirua batu nahi dute, egin behar izaten dituzten kilometroak 10-20 eurotan salduz.

Altxa ikuskizuna online

Soraluzeko Gure Eskuk zapatuan antzokian egitekoa zuen emanaldia bertan behera gelditu da. Ondorioz, www.hamaikagara.eus webgunetik jarraitu ahalko da Gure Eskuren Altxa ikuskizuna.

Emanaldiaren gastuei aurre egiteko 3 euro ordaindu beharko dira.

Errigorarako saskiak aukeran

Azaroaren 12ra arteko epea dago Nafarroa hegoaldeko produktuz betetako saskiak eskatzeko (arrunta, ekologikoa edo berezia). Eskatu zure saskia zuzenean errigora.eus webgunean edo bete fitxa Iratxon, Pil-pileanen edo Arranoan. %25a Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.



Aukeran dauden saskietako bi.



Herritarrek iazko Gaztañerre azokan.

Gaztañerre bako azaroa

Askorendako urteko egunik kuttunena den Gaztañerre azoka eta haren bueltako ospakizunik ez da izango; otorduak nabarmen gutxituko dira; elkarteak itxita daude eta jatetxeetan mugimendu gutxi dago

COVID-19aren datuek azken asteotan nabarmen egin dute okerrera. Hala ere, egoera okertu aurretik, irailaren 25erako. erabakita zegoen aurten ez zela Gaztañerre Azokarik egingo.

Azoka antolatzen edo bertan parte hartzen duten hainbat baserritarrek, ganaduzalek, artisauk eta Udaleko eta Debemeneko ordezkariak hartu zuten erabakia, batzar publikoan.

Ez zen erabaki samurra izan, ekoizleendako urteko azokarik onena baita Gaztañerrekoa.

Onena ekonomikoki, jendeak ohi baino gehiago erosten duelako eta onena, baita ere, azoka horretako ekoizleek eta

haien produktuek herritarrengandik jasotzen duten erantzunarengatik.

Azoka ez egitearen erabakiak, ulergarria izanagatik ere, tristura eragiten duela aitortu dute bertako protagonista nagusiek. Ondoko orrietan dago jasota haien iritzia mostra bat. Baita gobernuko eta oposizioko ordezkariena ere.

Jende-pilatzeengatik

Azoka bertan behera lagatzearen arrazoi nagusia ez zen izan azoka bera. Segurtasun neurriak hartuta eta distantziak zainduta, azoka egitea posible zela ikusi zen.

Kontrolaezina ikusten zen, ordea, azokaren aitzakian

Gaztañerre egunera gerturatzen den herritar eta bisitari ugarien pilatzea saihestea.

Otordu gutxiago

Azokarik ez da izango, bada, eta badirudi jende pilatzeak ere gutxi izango direla. Are gehiago azken aste honetan hartutako neurri murriztaileen ondoren.

Adibidez, elkarte gastronomikoak itxi izanak zuzeneko eragina izango du Gaztañerreko otorduetan.

Bestalde, herriko jatetxeetan ere mugimendu txikia dute zentzu horretan. Batzokiko kudeatzaile Jon Basaurik esan du oraingoz ez dagoela "mugimendurik". Txurruka jatetxea, berriz, aste honetan itxi egin dute. Hasieran, 15 egunerako itxi dute jatetxea, baina ikusita ezartzen ari diren neurri murriztaile gehienek zuzenean ostalaritzari eragiten dietela, ez dakite aurrerantzean zer gerta daitekeen. Azkenik, Armendiko Xabier Iribarrek esan du urtetik urtera bazkaltzera joan izan diren kuadrillak enkarguak bertan behera lagatzen ari direla.

AZOKA EZ EGITEAREN ERABAKIAK, ULEGGARRIA IZANAGATIK ERE, TRISTURA ERAGITEN DU

NEURRI BERRIEN ONDORIOZ ENKARGU ASKO BERTAN BEHERA LAGATZEN ARI DIRA HERRIKO JATETXEETAN

"Tristura handia ematen du, baina..."

"Guretzat egun berezia da, egun handia, jai modukoa. Azokan bertan jendeak gehiago erosten du, guk ere produktu bereziagoak ipintzen ditugu (frutak, barazkiak, ogiak)... Lan handia egin behar izaten dugu, baina ondo ibiltzen gara, jendea elkartu, anai-arrebak, bazkaria egin... Beraz, ez egiteak tristura handia ematen du. Baina



Elena Agirregomezkorta eta Ezosi Etxeberria

herrian gertatzen den jende pilatzea saihestu nahi dute, eta gu etortzea jendea tentatzea da. Ni (Ezosi) beste azoka batzuetan ere ibiltzen naiz, baina aurren asko ez dira egingo... Bestalde, Gaztañerre ez egiteko batzarrean erabaki zen beste azoka berezi batzuk egitea. Guk (baserritarrok) ez dugu haietan parte hartuko, larunbatetan etortzen gara kalera, beraz, betiko martxan ibiliko gara".

"Urteko azokarik inportanteena da"

"Ez zait erraza egiten erabakiarekin posizionatzea. Egoera dagoen moduan, alde batetik, ulertzen dut azoka ipini nahi ez izatea jendea pilatu ez dadin. Baina bestetik, pentsatzen dut alternatibaren batekin posible izango litzatekeela beste era bateko azokaren bat egitea. Nire ustez, Gaztañerre da urteko egunik indartsuena, polita,



Amaia Amor.

demaseko herri-giroa izaten da, jende asko etortzen da kanpotik... Artisautzat eta baserritarrentzat ere oso polita da; lan handia hartzen dugu prestatzen. Niretzat, pertsonalki, urteko azokarik inportanteena da, urtean bakarrik bitan-edo parte hartzen baitut. Gainera, harrera oso ona izaten dugu; benetan poz handia ematen du ikusteak jendeak zenbat baloratzen duen egiten duzuna".

"Hobe hurrengo urterako lagatzea"

"Bileran ikusi genuen Erregetxen azoka egitea posible dela, jende pilaketa kontrolatuta eta segurtasun neurriak zainduta. Baina herrian egun horretan sortzen den jende pilaketa kontrolaezina da; gainera, jendearendako parrandarako eguna da eta horrek zaildu egiten du kontrolatzeko aukera. Hori bai, pena handia



Oier Cerrejon.

ematen du. Urteko egunik onena da, jaien aurretik. Kuadrillak elkartzen dira, herrian demaseko giroa egoten da... Guretzat ere egun polita izaten da; egunean bertan lan handia hartzen da ganaduak jaisteko eta aurreko egunetan ere bai. Baina egoera ikusita eta gero eta okerrago goazela ikusita... azkenean hobe hurrengo urterako lagatzea. Ez du merezi arriskatzerik, egoera eskasa da".

"Pena ematen du, egun onenatarikoa da"

"Lehen Gaztañerre azokatik dihardugu muntatze-lanak egiten bertan. Aurtengo azoka ez egitearen erabakia ulertzen dut, ze gainera egoera okertzen ari da. Hori bai, pena handia ere ematen du, herriko egun onenatarikoa da Gaztañerre. Bestalde, gu, adibidez, ERTEan gaude martxotik. Pandemia hasi eta berehala ikusi genuen guk



Roman Maiztegi.

muntatzen ditugun moduko azokak bertan behera geratu behar zirela. Enpresan ERTEan dago muntatze-desmuntatze lanei eskaintzen dien lan-jardunaren bestekoa. Izan ere, azoka tradizionalen partez, txikiagoak antolatu izan dituzten arren, halakoak muntatzeko Soraluzen gu ez gaituzte kontratatzen, ez da behar. Gainerakoan, hori bai, bestelako lan batzuk egiten segitzen dugu".

"Diru-sarrerak banatu egin beharko lirateke"

"Osasun aldetik garbi dago aglomerazioak ezin direla sustatu eta gutxiago norberak antolatu. Ondo ikusten dugu azoka bertan behera lagatzea, baina pentsatzen dugu ez dela egin oso lanketa mamitsua diru-sarrerari begira. Egia da urte osoan honetan gabiltzanotatik inor ez dela geldituko ekoizpena saltzeko. Baina uste dugu horiei bermatu



Roke Akizu.

beharko egin beharko litzaiekeela dietak, besterik ez bada ere. Irizpide jakin batzuen arabera dieta horiek banatu egin beharko lirateke. Urte osoan ari direlako lanean. Eta horrez gainera, aukera eman beharko litzaieke beste egun batzuetan ere saltzeko. Zelako azpiegitura ematen zaien ere aintzat hartu beharko litzateke, eta adibidez, haimak muntatuta utzi eta ez lan hori norberaren esku laga".

"Dei efektua saihestu nahi da erabakiarekin"

"Garbi dugu baserritarrendako eta artisauendako urteko egunik inportanteena dela askogatik. Baina, denok dakigu egun horretan herrian bertan eta kanpoan bizi diren plazentziatarrak elkartzen garelako kuadrillan eta familian, eta jaiak baino egun handiagoa izaten dela. Pentsatu genuen dei efektua izango zuela azoka egiteak eta onena suspenditze



Ramon Gallastegi.

zela erabaki genuen. Baina, baserritarrei eta artisaueri eskaini genien edozein zapatutan, domekan, zubitán... azoka bereziak egiteko aukera, artisauak egin izan duten moduan. Gaztañerre ez egiteak dakarren kalte ekonomikoa zelanbait konpentsatzeko.

Egoera okertzen doa, gainera. Jai nagusi barik geratu gara eta Gaztañerre barik geratu beharko gara. Datorren urtean ospatuko ditugu".

"Soraluzeko jendea jatorra eta oso lagunkoia da"

ALAZNE MUGIKA MUGIKA ERIZAINA

Alazne Mugika Mugikak (Bergara, 1955) erretiroa hartu berri du, 1981. urtetik erizain izan ondoren; Soraluzen eman ditu azken urteak

Alazne Mugika Mugikak 2011tik jardun du erizain lanetan Soraluzen; baita lehenagotik ere, tarteka: "Hemen lehen arretarik ez zegoenean (1989), Elgoibartik Soraluzera etortzen nintzen, baita pediatria egitera ere (90eko hamarkadan)". Ezagun askoa dute bergarra, batik bat, baserri inguruetan.

Leku askotan egondakoa zara... Crucesen, Sestaon, Hospital de la Marinan... aurretik, erizain espezialitatea (psikiatria) Araban egin nuen. Hasi, baina, Parisen hasi nintzen gaixoak zaintzen, COU egiten nuen bitartean. Ikasi eta lana, biak batera egiten nituen Frantzian. **Soraluzen 2011tik jardun duzu lanean, zuk eskatuta?**

Bai. Etxetik gertu nuen eta hemengo jendea gustuko dut. **Zer dela eta?**

Gehienbat hemengo jendea ez delako hiritarra. Herriko ukitua du, baserriar ukitua. Beste era bateko jendea da. Neu ere, izatez, baserriarra naiz.

Zelako jendea gara, ba?



Alazne Mugika Mugika.

Agian lotsatiagoak, baina behin ezagututa, oso hurbileko jendea eta kontuan hartzen zaituena. **Erretiroa, pozik, penaz... hartu duzu?**

Bietara. Azken egoera oso gogorra izan da, gehienbat jende faltarengatik. Lan handia izan da. Etxez etxe ibili naiz, Sintrom-ak eta ematen. 10-12 abisu izaten nituen egunero, egoera normalean 2-3 izaten dira. Gainera, asko baserrietakoak ziren, eta

haietara joateko bideak... Zentzu horretan, hilabeteotan izandako laguntzarengatik eskertzeko gogoia dut: Udaltzaingoari, jendearendako materiala bertan lagatzen nuelako; Mendizabal okindegiari, Sintrom orriak lagatzen nituelako eta Arrate Irratiari, hori dena ondo antolatzen lagundu zidatelako, abisuak irratiz emanez. Adineko jendea oso urduri zegoen, eta jende edadetuak asko entzuten du Arrate Irratia.

Soraluzetarrak osasun aldetik aruntak gara?

Bai. Baina aldi berean hemen jende nagusi asko dago, batik bat emakumeak. Hemen egon zen pediatria batek esaten zuen, hemengo andre horrenbeste lan egiten zutenez, (atari bakoitzean zegoen torloju-fabrika bat, emakumeek ere lan egiten zuten), aktibitate horri esker ere izan zitekeela luzaroan bizitzea.

Zer esango zenieke lantokia aukeratzeko dauden osasun profesionaleri?

Lana egiteko leku aproposa dela; jendea jatorra da eta oso lagunkoia. Gainera, Soraluze alde guztietatik gertu dago. Askok ez dakite ezta non dagoen ere.

Beste zerbait nahi baduzu gaineratu...

Hemen oso gustura egon naizela, baita lankideekin ere, guztiekin, gainera. Oso giro ona dago.

"HEMENGO JENDEA EZ DA HIRITARRA, BASERRITAR UKITUA DAUKA, HORREGATIK DUT GUSTUKO"

Tratu txarren sei kasu urtero

"HERRI TXIKIETAN KONTROL SOZIALA DAGO ETA INDARKERIA ERAGITEKO ERREPARO HANDIAGOA IZATEN DA"

Deba-Urola ertzain-etxean bi langilek egiten diete jarraipena indarkeria matxista eta etxe barruko indarkeria kasuei; 2004tik, Soraluzen indarkeria matxistarekin lotutako 102 kasu izan dira

Aurten, pandemia bete-betean eta alarma egoeran iritsiko da Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, Azaroaren 25a. Egoera berezia izanda, begirada asko datuetan daude jarrita, jakin nahian ea indarkeriarengatik ipinitako salaketak handitu edo gutxitu egin diren. Sarri, zoritxarrez, datuak izaten baitira emakume askok bizi duten indarkeria egoeraren erradiografia bakarra.

Halako datuen zuzeneko informazioa izaten dute, besteak beste, salaketa ipini duten emakumeak babesteaz arduratzen diren langileek.

Soraluzekoen berri Andoni Larrañaga ertzainak eman du. Bera eta beste lankide bat dira Deba-Urola ertzain-etxean emakumeen kontrako indarkeriaz eta etxeko indarkeriaz arduratzen diren agenteak. "Ertzaintzan, halako espezifikotasuna duen delitu bakarra da genero indarkeriarena. Ertzain-etxe guztietan lanpostu kopuru jakin batzuk daude gordeta delitu horien jarraipena egiteko. Harreman estua dugu tokian tokiko udalerrietako gizarte zerbitzuekin eta beste gizarte eragile batzuekin".

"Bi hiletik behin kasu bat"

Soraluzeko egoeraz galdetuta, Larrañagak jakinarazi du pandemia garaia izanagatik ere salaketak ez direla ugaritu: "Konfinamenduan, martxotik ekainera, jaitsi egin ziren salaketak eta ekainetik aurrera, berriz, "normaldu", baina ez daude gehiago. Azken salaketa urriaren hasieran izan zen. Oro har, Soraluzen urteko media bi hiletik behin tratu txar kasu bat da. Ez du zerikusirik, adibidez, Arrasaterekin. Han datu guztiak gainditu egiten dira. Aldiz, hemengoak Aretxabaletako datuen antzerakoak dira, eta Aretxabaletan 7.000 biztanle bizi dira. Oro har, herri txikietan

kontrol soziala deitzen dena dago eta jendeak erreparatu handiagoa izaten du. Bestalde, konfinamendu garaian, eskatu ziguten indarkeria espediente bat indarrean izan eta elkarrekin bizi ziren bikoteen kasuan biktimei bi egunean behin deitzeko. Horrela egin genuen".

Kartzelan egon arren, mehatuak

Tratu txarren kasuetan, askotan egiten den galdera da ea zergatik arreta biktimarengan jartzen den eta ez erasotzailearengan. Bestela esanda, zer dela-eta ibili behar izaten duen emakumeak poliziaren zaintzapean eta ez gizonezkoak. Berehala erantzun du etzainak: "Guri gertatu izan zaigu erasotzailea kartzelan egon arren, emakumeak euren seme-alaben argazkia jasotzea mugikorrean, umeak ikastolako

Biktima gehienak gazteak dira

2004tik 102 kasu izan dira Soraluzen. Bi heren genero indarkeriakoak; gainerakoak etxeko indarkeriarenak. Kasu guztietatik heren batean adin txikikoak daude tartean. Arrisku neuriei buruz, ohikoena da Oinarrizkoak izatea. Oso gutxitan Ertainak edo Altuak. Berezirik ez. Biktimen adinari buruz, erdia baino gehiago 18-39 urte artean daude. Beste %33 40-59 urte artekoak dira. Gainerako adin tarte guztiak oso txikiak dira. Berdin gertatzen da erasotzaileen adinarekin ere. Indarkeria mota guztietan, erasotzaileak, hamarretik bederatzizkoak dira. Dena den, herrian bizi den egoera jakiteko diziplina-askotariko ikuspegia behar da: Ertzaintza, Udaltzaingoa, Gizarte Zerbitzuak, Cáritas, Elikagaien Bankua, Anbulatorioa, ikastetxeetako orientatzaileak, elkarte feministak...

patioan daudela, gizonak kartzelatik bidalitako argazkia mehatxu inplizituaz edo esplizituaz lagunduta; halakoak ikusita, emakumea babestea besterik ez dago".

Hiru hilabete, gutxienez

Babes horri dagokionez, nahikoa da poliziak indarkeria dagoen susmoa izatea protokoloa abiarazteko: "Ertzaintzak uste badu genero indarkeriaren edo etxeko arteko tratu txarren kasu bat egon litekeela, espedientea zabaltzen da eta jarraipena egiten zaio, neurri judizialak egon ala ez. Gutxieneko denbora da hiru hilabeteko jarraipena, agindu judizialarekin nahi beste luza daitekeena. Hala ere, poliziak uste badu agindua bukatuta oraindik arriskua egon litekeela, babesa ematen jarraitzen da".

Lau arrisku-maila

Kasu bakoitzari eman beharreko tratamendua zehazteko, berriz, galdetegi espezifikoko bat aplikatzen dute: Euskal Herriko Unibertsitateko Enrike Etxeburua Psikologia Klinikoko katedradunarena. "2003an, Barne Sailarekin batera neurgailua garatu zuen Etxeburuak, galdetegi jakin batean oinarrituta; haren bitartez, tratu txarra salatu duen emakumearen arrisku-maila zehazten da. Lau dira: Oinarrizkoa, Ertaina, Altua eta Berezia. Arrisku-maila bakoitzak du lotuta gutxieneko babes neurri batzuk abiaraztea. Guk, hala ere, ikusten badugu horiek baino gehiago behar direla, pertzepzio hori dagoelako edo Gizarte Zerbitzuetatik abisatzen digutelako, neurri handiagoak ezartzen ditugu. 10 babes-

neurri baino gehiago daude. Adibidez, izan liteke biktimari bi hilean behin deitzea edo hamabostean behin; bestetan, biktimaren bizileku ingurutik kotxe patruila pasatzen da ikusgarritasuna eman eta biktimari erakusteko han daudela bera babesteko eta erasotzaileari beldur apur bat emateko... Arrisku-maila Bereziak, berriz, emakumeari eskolta ipintzea eskatzen du. Gaur egun, ez Soraluzen eta ezta Deba-Urolan ere ez dago Berezia kalifikazioa duen kasurik. Esango nuke 16 urtean 10 Berezi baino gutxiago izan ditugula. Oro har, Ertzaintzako patruila batek egun baten egiten duen lan prebentiboko jardunaren %15a halako zaintza zereginetara dago bideratuta. Horrekin lotuta, badugu aplikazio berezitu bat ere. Biktimak nahi badu, telefonoan ipintzen zaio eta App horren botoia sakatuta, dei bat sartzen da 112ra. App hori duten telefonoek beti izan behar dituzte datuak eta GPSa aktibatuta. Hartara, botoia sakatuta, telefonoak esaten digu emakume hori non dagoen geolokalizatuta. Badakigunez, botoia sakatu duen pertsona biktima dela eta laguntza behar duelako sakatu duela, gertuen geolokalizatuta dagoen patruila bidaltzen zaio".

Eskatu egin behar

Larrañagak azpimarratu du babes neurriak eskatu ezean ez direla ematen: "Fiskalak egiten du balorazioa. Ados badago, berak ere eskatuko du babesa. Gero epailearen esku geratzen da eman ala ez. Hark beste galdera batzuk egingo dizkio salatzailari. Eta gero berak erabakiko du".

Nagusien omenaldirik ez

Itxaropena Erretiratuen Elkartetik jakinarazi dutenez, Jaurlaritzaren neurriak aintzat hartuta, 80 urtetik gorakoei egiten zaien omenaldia bertan behera gelditu da. Berdin gertatu da azaroko informatitako tailerrarekin ere. Horrez gain, gogora ekarri dute Itxaropenako elkarte itxita dagoela.



lazo omenaldia.

Beste 15 egun Itxaropenarako

Oraingoan, inork ez du aurkeztu proposamenik Itxaropena Erretiratuen Elkarteko taberna kudeatzeko. Hori ikusita, Soraluzeko Udalak erabaki du beste 15 lanegunez luzatzea proposamenak aurkezteko epea. Hori horrela, interesa dutenek azaroaren hirugarren aстера arteko epea dute haiek aurkezteko, udaletxean.

Indarkeria matxista langai duen gida

Emakumeen aurkako indarkeria zer den, indarkeria mota hori zelan gauzatzen den eta beste zehazten duen gida argitaratuko dute

Udaleko Berdintasun Sailak indarkeria matxistarekin lotutako gida banatuko du etxez etxe azaroan, hilaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako eguna dela kontuan hartuta.

Patricia Borinaga Berdintasun Saileko batzordeburuak esplikatu duenez, helburua da "herritarrei laguntzea argi eta garbi identifikatzen zer den emakumeen kontrako indarkeria eta indarkeria mota hori zelan gauzatzen eta agertzen den".

Baliabideak eta zerbitzuak

Hark gaineratu duenez, indarkeria matxista jasaten duten emakumeek eskura dituzten baliabideen eta zerbitzuen berri ere emango du gidak.

Berdintasun plana onartuta

Bestalde, urrian, udalbatzarrak onespena eman dio Berdintasun Sailak landutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planari.

Patricia Borinaga arduradunak azaldu duenez, plana egiteko "kontuan hartu dira udalerrriaren berezko ezaugarriak eta egitasmoaren baitan ezarritako helburuak gauzagarriak, neurgarriak eta oraingo testuingurura egokitutakoak izatea. Plana zeharkako tresna izango da udal arlo guztietan: Kultura, Kirolean, Hirigintzan...

Udaleko politikariek eta teknikariek zein herritarrek parte hartu dute plana lantzen. Plana egiteko abiapuntua II. Berdintasun Planaren betetze-maila ebaluatzea izan da".

Izoztu egin dituzte zergak eta tasak

2020-2021eko udal tasak eta zergak izoztu egingo dira, udalbatzarrak urriko osokoan aho batez onartuta. Hala ere, salbuespenak izango dira. Nabarmenetako bat da kendu egingo dutela urteotan etxebizitza hutsei ezarri zaien %75eko errekarua, EH Bilduk eskatuta eta guztiek onartuta. Arrazoa da errekaru horren bitartez batutako dirua etxebizitza politikek bideratzeko EH Bilduren baldintza ez dela bete urteotan.

Bestalde, Olaldeko Plan Berezia behin betiko onartu zuten. Egitasmo hori Santa Ana kaleko udal biltegitik hasi eta Olako zubirainoko esparrua zaharberritzeko da. Honako jarduera aurreikusten du: 100etik gora etxebizitza (tasatuak, libreak eta babestutakoak), 1.500 m² behe-barru komertzialetarako, lurrazpiko 189 garaje eta trastelekuak. Errepidea ibaiarekiko paralelo egitea eta Errekaldeko oinezkoen zubiaren partez berria eraikitzea ere aurreikusita dago.

Urriko euriekin mendia ase-ase

Mendigaineko potzua ikusten da urria hasieran Pedro Elizburuk bidalitako argazkian. Poz handiarekin bidali zuen, hogeitaka urteetan ikusi barik zeukan Mendigaineko potzua horrenbeste urez beteta. Iraila amaierako eta urria hasierako euriteei esker bete zen. "Laster ugaraxoak irtengo dira", kontatu zuen.



Mendigaineko potzua urez beteta. PEDRO ELIZBURU



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuak
- Etxeko iripaki eta txistorak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 22 75

Sukalde tradizionala

Armendi Jatetxea

Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko Irtoak
Soufflé



Tel.: 943 75 10 02

KLB6

Kalebarren 6
943 67 74 20
Makur-eta-randen-modokoak



BSB *Paga Jaso* **ISOLID**
VERO MODA **ESONICH** **new balance**

Kontulan 

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, altoperak • Administrazioa lanak
Traffiko burokrasia • Lan-erlako aholkularitza
Enpresen konstituzio/leialdeak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. era. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure genakoz hartu klinika, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cal-Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.



Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

ARRANO
taberna

Etxari eta gozatu
etxeak pintxoak



Etxaburueta 6
Telefonoa: 943 75 24 09

Jatorrean jalarrena, berritaski berrizena

Batzoki
TABERNA



eguneko menua
asteburuetan
karta eta txistorak

egutirikoz eta
hamburgeriak
enikango bereziak

Basila eta
lagun arriko
buzkarak

Dresnahak 943 75 20 35

IZAGUIRRE
Igeltzeritza



Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

Hortz klinika

Erabil 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologia
K.Z. 48.000.590

27 urteko esperientzia
odontologia, proteiak,
odontopediatria, ortodontia,
implantzak, estetika...

Katia Gustinio
Odontologia
K.Z. 48.001.541

Zerbitzu radiologiko orokorra (RC):
ekianeta, orfito eta tele.



Soraluzeko
Kooperatiba Elkartea
1910tik ezabak

Araindegia, janaria,
erropak, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Astelehenerdik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 12:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45



BOLIA
TABERNA



Pirxoak, arinak,
kombinatuak
Gazte-giroko festa



MENDIZABAL
okindegia

Ogja - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Almar
SOLARIZATZA

Beapaindegia
Estetika
Solortutua



Gabildeg 4, behea
Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenerdik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, ogja,
prentsa, pastinak,
buzkarak.
Etxera eramateko zerbitzua

Tel.: 943 75 24 43

FOGASLER
ITURGINTZA



943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Euskalzaletasunaren alde:

SOMABE Supporting your projects

aras

ALBISUA S.L.


laibi ELECTRICIDAD



Baloratuenak

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: KONTRARGI ARGAZKILARI KOLEKTIBOA

Aurten, 32. edizioa izan behar zuen Kontrargik udazkenean antolatu ohi duen argazki rallyak, baina ez da gauzatuko. Bai gauzatuko da, ordea, rallyarekin batera egin ohi duten argazki erakusketa. Hori aste honetan zabaldu dute eta azaroaren 14ra bitartean izango da ikusgai. 30 argazki ipini dituzte Erakusketa Aretoan, XXXI. Kontrargi Argazki Rallyan baloratuenak. Segidako zortziak dira haietako batzuk. Argazkiak ateratzeko erabilitako gaiak bost izan ziren: Ekologikoa, Paraleloa, Belaunaldiak, Tantak eta Keinuak. Irabazleak, berriz, honakoak izan ziren: 1- Bergarako Jose Luis Feo Gonzalez, 2- Beasaingo Javier Quiros Fernandez, 3- Donostiako Jose Angel Amutxastegi Esnaola eta Herriko saria Carlos de Cos Azkona.





GUTUNAK

Autobusa ez zen Soraluzera sartu

MARIMAR DEZA

Kexua eta erreklamazioa helarazi nahi ditut joan den urriaren 20an Soraluze eta Donostia arteko 16:05eko autobus zerbitzua ez zelako herritik pasatu.

Atzerapenarekin zetorrela eta, Bezeroaren Arreta Zerbitzura deitu nuen; han, baieztatu zidaten, Espainiako Vueltak eragindako atzerapena izan arren, autobusa laster iritsiko zela. Baina, AUTOBUS HORI EZ ZEN SORALUZETIK PASATU. Pasatu ziren, ordea, Eibarrera zihoazen beste hiru autobus, beraz, agerikoa zen Vueltak eragindako arazoak konponduta zeudela.

Donostiara zihoan autobusa, berriz, ez zen Soraluzetik pasatu. Zergatik?

Zergatik ez da Soraluzen sartzen Lurraldebusen web orrian iragarritako zerbitzu hori hemendik pasatuko dela baldin badiote?

Zein da halako zerbitzu publiko kaskarrak izan lezakeen justifikazioa?

Gainera, ez da halako zerbait egiten duten lehen aldia. 2020an, niri, behintzat, SEI bider gertatu zait gauza bera. Eta nik autobusa ospitalera joan-etorriak egiteko erabiltzen dut. Beraz, are larriagoa iruditzen zait zerbitzu horren funtzionamendua. Ospitalera joatea beharrezkoa da, ez da luxua.

Gipuzkoako Mugikortasun eta Antolamendu Departamentuari zein Soraluzeko Udalari zuzendu natzaie, erreklamazio hau aintzat hartu eta gabeziak konpon ditzaten.

Bestela, berriro ere kalera irten beharko gara Soraluzerako garraio publiko duinak eskatzera? Ni, behintzat, gertu nago hori egiteko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



ZIR(R)IKA

BERBA EGITEAK LAGUNTZEN DU P.G.



PUNTUA



PAULA ALONSO

Hiriko argi-ilunak

Bilboko kale nagusian nahiko jende gutxi ibili ohi da gaueko 10etatik aurrera. Portaleko atean giltza sartu eta pare bat bizilagunekin egin dut topo.

Hitz gutxi elkarbanatzen dira hiri handietako etxe-atarietan.

Kalean ere bakoitzak bere horretan dihardu; asko jota, birritan ikusi duzun dendaria agurtu eta aurrera segi.

Erosoa da batzuetan hiriek eskaintzen diguten anonimotasun hori. Hotza ere izan daiteke, arrotza.

Maskarekin areagotu egiten da arrotzasun hori, eta anonimotasun horrek ezezagun egiten gaitu. Etxeko atetik at dagoena zaigu arrotza hirietan, eta bost metrora bizi denarengan mesfidantza sortuko dugu.

Herrietan bestelakoak dira kontuak; plazatik plazara egindako bidea hirikoa baino goxoagoa gerta liteke, urriko lehenengo euriteetan ere bai.

Xamurrak dira herriak; gure oasi txikiak, ezagun ez izan arren arrotz egiten ez gaituzten tokiak.

Gainera, norberaren bidea da herriko kaleena; gure oroitzapenena, guk bizitako abenturena, bizipen guztiena.

Azken finean, herrien kasuan, horrek egiten ditu hain geureak eta, aldi berean, hain denonak.



Ohiturak aldatzeko ariketa erraldoia

Azaroaren 20an hasi eta abenduaren 4ra bitartean egingo da Euskaraldia, Euskal Herri osoan hizkuntza ohiturak euskararen alde aldatzea helburu duen ariketa erraldoia. Soraluzen, dagoeneko, 180 herritarrek eman dute izena.

Testua: **Egoitz Unamuno.**
Argazkiak: **Fernan Oregi.**

Hilabete eskas falta da Euskaraldiaren bigarren edizioa hasteko eta poliki-poliki herria eta herritarrak ari dira prestatzen ariketa egiteko. Batzordeak jakinarazitako datuen arabera, orain arte, guztira, 180 herritarrek eman dute izena eta adierazi dute girotze prozesua “martxa onean” doala. “COVID-19ak ezarritako oztopoen gainetik, herritarrak erantzuten ari dira eta badirudi aurtengo edizioan ere parte-hartzaile kopuru handia izango dela.” Gogoratu behar da, aurreko edizioan, 580 herritarrek eman zutela izena.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko aukera zabalik dago Euskaraldia.eus webgunean eta Santa Anako lekalean. Aste honetatik aurrera udaletxeko harreran, Iratxo goxodendan eta Marimar harategian ere izango dira fitxak eskuz bete eta izena eman ahal izateko. Belarriprest eta Ahobizi txapak, berriz, azaroaren 6tik aurrera eskuratu ahal izango dira, goizez udaletxeko harreran eta arratsaldean Santa Anako lekalean (17:30-19:30).

Batzordeak jakinarazi duenez, lekalean txandak egiteko izena ematen ari diren boluntario kopuruari esker, ariketa hasi aurreko 10 egunetan Euskaraldiko mahaia egunero izango da kalean, izena eman, txapak jaso edota materiala erosteko aukera eskainiz.

Entitateetako Ariguneei dagokionez, guztira 43 dira orain arte izendatu direnak: 3 enpresa, 22 komertzio eta 7 elkarte. Entitate

Herriko hainbat gaztek izena eman dute dagoeneko eta gainerako gazteak animatzeko hainbat komunikazio ekintza ere prestatu dituzte, datozen egunetan internet bidez zabalduko direnak.



horietan guztietan egingo da hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa, izan entitateko kideen artean (barne-arigunea) edota bezeroekin (kanpo-arigunea). Izen-emateari dagokionez, batzordeak erabaki du, izena emateko aukera zabalik mantentzea azaroaren 5era arte.

Belarriprest rolaen esanahia

Euskaraldiko antolatzaileek argitu nahi dute Belarriprest eta Ahobizi rolaen gakoa portaeran dagoela eta ez hizkuntzaren ezagutzan. “Hamabost egunez euskaraz dakiten guztiei beti euskaraz egitea oso konpromiso potentea da eta Belarriprest rola aukera ematen du Ahobizi moduan jokatzeko nahi eta ahal denean egiteko. Beraz, animatzen ditugu herritarrak hamabost egun horietan lortu nahi dituzten ohitura aldaketak ahal bezain zorrotz neurtzera eta portaera horri egokitzen zaion rola aukeratzera.”

Prestatzeko tailerrak

Aurreneko edizioan bezala, oraingoan ere, tailerrak antolatu dira norbanako moduan Euskaraldia prestatzeko. Arianne Unamuno batzordekideak azaldu duenez, aurtengo tailerretan Belarriprest eta Ahobizi rola batera landuko dituzte: “Tailerren helburua izango da elkarrekin rola hobeto ezagutzea, ondoren norberak hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa errazago egin dezan. Tailerretan aurreneko edizioko hizkuntza bizipenak konpartituko ditugu, elkarren gogoia indartu eta motorrak berotzeko.”

Tailerrak Euskaraldia prestatzeko

Asteburuetan:

Azaroak 7, 8, 14 eta 15.
Goizez, 11:30-13:00.

Eguenetan:

Azaroak 12 eta 19.
Arratsaldez, 18:00-19:30.

Lekua:

Herriko Antzokian,
atzeko aldean.

Izena emateko modua:

605706086 telefonora
edo soraluze@
euskaraldia.eus
helbidera idatzita.

Arigunea Arasen ohiturak aldatzeko

Aras lantegia 1950. urtean eratu zuten eta gaur egun mekanizatu eta dekoletaje piezak egiten dituen enpresa ertaina da, hamazazpi langile dituena. Langileen artean gehien gehienek dakite euskaraz (%80) eta hori izan da Euskaraldian izena emateko arrazoi nagusia: “Ikusten dugu gure enpresako langile batzuek euskara garrantzitsua dela eta erabaki dugu ariketa maila pertsonaletik enpresa mailara eroatea. Orain Euskaraldian parte hartuko dugu eta etorkizunean ikusiko dugu bestelako pausorik eman dezakegun, errotulazioan edota oharretan.”.

Arigunea bulegoan

Arasen, bi Arigune osatu dituzte: barne eta kanpo arigunea, biak bulegoan, bertan jarduten duten hiru lankideen artean. Izan ere, hirurek (Maitek, Alaznek eta Estik) ulertzen eta egiten dute euskaraz eta erabaki dute Euskaraldiak iraungo duen hamabost egunetan Belarriprest eta Ahobizi moduan jardungo dutela. “Gure artean eta lantegi barruan gehienbat gazteleraz egiten dugu, baina, oster, komertzialki, dezente egiten dugu euskaraz. Gure bezero asko hemengoak dira, euskaldunak, eta horiekin euskaraz egiten dugu. Beste batzuekin gazteleraz, frantsesez edo ingelesez egiten dugu”. Lau hizkuntza horiek dira enpresaren



Alaznek, Maitek eta Estik osatuko dute Araseko Arigunea.



Izena eman duten lankideak.

eguneroko jardunean erabitzen dituztenak.

Tailerrean Arigunerik izendatu ez duten arren, lantegiko beste lau langilek ere eman dute izena Euskaraldian: Jokinek, Jonek, Anderrek eta Hodayfak. Ariketak irauten duen hamabost egunetan

Belarriprest eta Ahobizi moduan jokatuko dute.

Aitzindariak herrian

Arasek bezala, Iterga eta Carmelo Mendizabal enpresek ere eman dutena izena Euskaraldian. Lantegi bakoitzak Ariguneak izendatu ditu, “euskaraz lasai egiteko guneak”. Ondorioz, hiru enpresa horiek aintzindari bihurtu dira herrian, industria arloan euskara modu antolatuan sustatuko duten lehen lantegiak izanik. Euskal Herrian badira beren jardunean euskara plan pilotuak ezarriak dituzten berrehun bat enpresa, gizarte erantzunkizunari, pertsonen asebetetzeari eta hizkuntzen gestio efizienteari loturik euskara era antolatuan eta progresiboki garatzen dihardutenak.

“Garbi daukagu herritarrak euskaraz atenditu behar ditugula”

Badira urte batzuk udaltzain guztiek euskaraz ulertzeko eta egiteko gaitasuna dutela eta udaltzainek herritarrak bi hizkuntza ofiziletan artatzen dituztela. “Guk garbi daukagu langile publikoak garela eta herritarrak euskaraz atenditu behar ditugula” dio Gotzon Odriozola batzordeburuak.

“Momentu honetan, lau udaltzain gaude herrian: Gotzon, Eulogio, losu eta Ander. Laurok euskara maila egokia dugu herritarrekin ahoz euskaraz jarduteko eta egiten dugu”. Horrez gain, Gotzonek azpimarratu du, aspaldiko urteetan, telefonoz lehen hitza beti euskaraz egiten dutela, “Udaltzaingoa, bai?” esanaz,



Eulogio, Ander eta Gotzon udaltzainak Arigunea euskarria eskuetan.

hemitarrak jakin dezaten euskaraz egin dezaketela.

Kanpo eta barne arigunea

Lau udaltzainek parte hartuko dute Euskaraldian: “Ondo ikusten dugu Euskaraldia,

aukera ematen duelako dakienak gehiago egiteko eta ez dakienak gehiago entzuteko”. Eulogiok, Anderrek eta Gotzonek Belarriprest moduan parte hartuko dute eta losuk Ahobizi moduan.

“Gure dendan lehen hitza beti euskaraz da”

Iratxo goxodendan lehen hitza beti euskaraz egiten dute Itziarrek eta Loreak, baina atzeman dute azken urteetan gaztelerarako joera gero eta indartsuagoa dela herrian eta euren artean. “Batez ere umeen artean igjerri dugu aldea, geroz eta gehiago eta gazteago datozelako gazteleraz. Baina orokorrean ere, esango nuke azken urteotan herria asko erdaldundu dela eta pena ematen dit”, dio etsipenez Itziarrek.

Loreak eta Itziarrek aurreko Euskaraldian ere parte hartu zuten eta aurten ere parte hartuko dute. “Egia da hamaika egun haietan aldaketa



Itziarrek eta Loreak osatuko dute Arigunea Iratxon.

igerri zela eta euskaraz jende gehiagorekin egin genuela, baina gero gutxi dira hori mantendu dutenak. Pixkat etsita gauden arren, oraingoan ere egingo dugu ahalegina, bai gure artean eta bai

bezeroekin”. Barne eta kanpo ariguneeak izendatu dituzte, hamabost egunez ariketa egiteko,

Itziarrek eta Loreak, biek, aukeratu dute Ahobizi rola Euskaraldirako.

Hiztunen testigantzak

Euskaraldian izena eman duten bost herritarren hizkuntz-testigantzak eta iritziak jasotzen dira atal honetan: nola jaso duten euskara, egunerokoan zertan erabiltzen duten, zein asmo dituzten euskaraldirako... Gogoratu, izena online emateko aukera dagoela euskaraldia.eus webgunean.

"Ezin da ardura dena hiztunon bizkar laga"

Oiherrek Fagor taldean lan egiten du. Batez ere, han landu du hiztun kontzientzia: "Fagorrek euskara plana du eta nik euskara batzordean parte hartu dut, enpresak bere funtzionamendua euskalduntzeko ezartzen dituen irizpide eta politikak zehazten. Nire hizkuntza aktibismoa eta Ahobizi portaera Fagorren landu ditut



Oiher Aranzeta.

eta nik orain automatikoki euskaraz egiten diot edozeini, konturatu ere egin gabe batzutan".

Euskaraldian Ahobizi moduan hartuko du parte, baina badu eskari bat: "Nik uste dut arriskua dagoela ardura bakarrik hiztunon bizkar lagatzeko. Nire ustez agintariek neurriak hartu behar lituzkete, esaterako, telebista publikoan, euskaldunak euskaraz elkarrizketatuz".

"Asko gustatzen zait euskaraz egitea"

Alaznek etxean jaso duen hizkuntza gaztelera da: "Aitita Palenciatik etorri zen 20ko hamarkada hasieran, hiru urte zituela, eta euskaraz ikasi zuen. Amama euskalduna zen, baina etxean gaztelerez egiten zuten. Nire amak eta izebak ez dute erraztasunik izan berba egiteko".

Euskaraz umeekin, lagun batzuekin eta lanean ere egiten



Alazne Rascon Del Bosque.

du. "Asko gustatzen zait euskaraz egitea eta gehiago egitea nahi dut, baina kostatzen zait, batez ere elkarrizketa luzeak direnean. Askotan gaztelera pasatzen naiz, erosotasunagatik".

Aurten, lehen aldiz parte hartuko du Euskaraldian eta Ahobizi moduan eman du izena: "Nire helburua da euskaraz berba egiten didanarekin euskaraz jarraitzea gaztelera aldatu barik".

"Talde handian gazteleraz egiten dugu"

Aitorrek euskara etxetik dakar eta ikasketak ere euskaraz egin ditu. Lanean tokatu zaio gazteleraz egitea: "Bi urte eman nituen Donostiako enpresa batean eta lankideren batekin egiten nuen euskaraz, baina enpresako hizkuntza gaztelera zenez, azkenean gaztelerara pasatzen ginen". Gaur egun, lagun artean, euskaraz eta gazteleraz egiten



Aitor Oregi.

du momentuaren eta, batez ere, solaskidearen arabera: "Nik beti izan dut lagun arte oso euskalduna, beti euskaraz egin dudanekin elkartzen naizenean euskaraz egiten dut, baina orain hainbat adinetako lagunak elkartzen gara eta talde handian gaudenean gazteleraz egiten dugu". Euskaraldian Ahobizi izango da: "Ahaleginduko naiz lehen euskaraz egiten nuen lagunekin euskaraz egiten".

"Koadrilan beti euskaraz egin dugu"

Federikok, batez ere, kalean ikasi zuen euskaraz: "Eskolan erderaz egin behar izaten genuen eta eratzuna jartzen ziguten euskaraz eginez gero, baita zigorra jarri ere; "no hablare en vascuence" idaztea edo beste edozer. Guk, baina, kalean euskaraz egiten genuen".

Lanean ere giro euskalduna egokitu zitzaion. "Ni ajustadore




Federiko Eguren Markaide.

ikastera sartu nintzenean SAPAn langileen artean euskaraz egiten zen. Zuzendaria, haren seme-alabak eta langileren bat izan ezik, denak ziren euskaldunak".

"Koadrilan ere beti egin izan dugu euskaraz. Kanpotik etorri zirenek ere ikasi izan dute guri entzunez." Aurten ere Belarriprest izango da euskaraz bizi delako eta euskaraz egitea maite duelako.

"Oraingoan Belarriprest izango naiz"

Igonek etxean jaso du euskara, baina sentsazioa du, denborarekin, geroz eta gehiago egiten duela gazteleraz: "Bikotea moldatzen da euskaraz, baina nik erdaraz ezagutu nuen eta ohitura dugu erdaraz egiteko. Lagun artean ere askotan euskaraz ez dakien jendea izaten da eta erdarara pasatzen gara. Lanean ere joera erdaraz



Igone Mendizabal.

egitekoa da. Ia konturatu barik erdaraz egiteko joera hartu dut".

Euskaraldian Belarriprest izango da. "Aurreko edizioan Ahobizi izan nintzen eta konturatu nintzen zenbat egiten nuen erdaraz. Nik euskaraz gehiago egitea nahi dut, gehiagorekin eta gehiagotan, aurtengo lema dioen moduan. Halako zerbait behar dut neure buruari obligazioa jartzeko."

TXOR TXOR

Bakarrizketa
umoretsua

SORALUZE

HERRI ANTZOKIA

AZAROAK 7, ZAPATUA

19:30ean



Txoko

Eguneko menuak,
plateak konbinatuak,
hamburgesak,
ogitarlekoak,
rasiak,
pizzaak,
gogorak...

Erakargarriak egiten dira
Tel. 943 75 17 69

MGS
Seguros

Santa Ana 13 - Tel. 943 75 14 57

Asteleheneratik ostiralera:
09:30 - 12:00 eta 15:30 - 20:00

Larunbatak:
09:30 - 12:00

**TXURRUKA
JATETXEA**

Sukalde
Irretradizionala
Eguneko menuak
Asteburuetako
menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81

**Carpinteria
MANU
Aroztegia**

Atakak
Bontakak
Pintakak
Sukaldeak
Tortakak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25

Belarrak
lana eta
belardenda

Elkargai
ekologikoak
Etterako perbituzak

Santa Ana 22
943 75 30 11

**JUAN MARI
ARRANDEGIA**

Arakak Irretrak
Etxera eramandako zerbitzua
Erakargarriak hartzen ditugu

IBARRATI PLAZA - 943 75 34 48

Euskalzaletasunaren alde:





Sora Rugby Taldeko jokalarik gazteak entrenamenduetako batean. AITZIBER MAYO

Kirola seiko taldetan

Aste honetan indarrean sartu den Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren arabera, taldeko kirola egitea baimenduta dago, asko jota seiko taldetan eta segurtasun neurriak beteta

Aste hasieran, inguruko udalerrietan hartzen ari ziren neurriak oinarri, Udalak bertan behera laga zituen herrian egiten diren eskola mailako kirol jarduera guztiak zein taldean egiten direnak. Eguazten iluntzean, berriz, atzera bota zuen agindua, Eusko Jaurlaritzaren azken dekretuaren arabera, baimenduta baitago kirola taldean egitea, beti ere, gehienez sei pertsona elkartzen badira eta noski, orain arte ezarritako segurtasun neurriak errespetatzen badira.

Futbola, rugbya, kiroldegikoak...
Hori horrela, aste honetan etenda egon diren kirol

jarduera gehienak atzera ere martxan ipiniko dira datorren astelehenetik aurrera.

Halaxe egingo du, adibidez, Sorako futbol eskolak. Bestelako ezustekorik ezean, astelehenean bertan ekingo diete entrenamenduei, orain artekoak baino talde txikiagoak sortuta.

Gauza bera egingo dute Sora Rugby Taldekoak. Kasu horretan, eguaztenean dute

ESKOLA MAILAKO KIROL JARDUERA GEHIENAK MARTXAN HASIKO DIRA BERRIRO ERE

entrenatzeko hitzordua eta orduantxe hasiko dira.

Pilotari dagokionez, berriz, ez diete ekingo pilota eskolari. Lehenagotik begirale faltan zeuden eta Jaurlaritzaren neurri berriekin begirale gehiago ipini beharko lituzkete. Beraz, pilota eskolarik ez da izango, momentuz. Bai, ordea, federatuta daudenen entrenamenduak, beti ere Soraluzekoak badira edo ondoko herrietan bizi badira.

Azkenik, Marras Hockey Taldeak astearen amaieran erabakiko du zer egin.

Eskola kirolik ez

Bestalde, datorren astean hasiko dira berriro ere udal kiroldegiko taldeko kirolak: spinninga, kick-boxinga, pilatesa, zumba, luzaketak, hipopresiboak eta Biraka.

Eskola kirolari dagokionez, berriz, Jaurlaritzaren neurri murriztaile berriak indarrean egongo diren 15 egunetan gutxienez, eten egingo dute jarduna, begirale gehiago lortzeko zailtasunarengatik eta kirola egiteko instalazioek dituzten mugengatik.

UDAL KIROLDEGIAK ESKAINTZEN DITUEN TALDEKO KIROLAK DATORREN ASTEAN ABIARAZIKO DITUZTE

ESKOLA KIROLAK ETEN EGINGO DU JARDUERA, AZKEN NEURRIEK INDARREAN SEGITZEN DUTEN BITARTEAN

SUDOKUA

Plater gustagarriak eta sanoak prestatzeko moduen artean egostea

da egokienetako bat. Bete itzazu lauki zuriak, EGO-SIA hitza osatzen duten hizkiekin (E, G, O, S, I eta A). Gogoratu elementu bakoitza behin ager daitekeela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.


E			G		
S	A		I		
		E	G		
	O	S	E	I	
	E			O	S
S	I		E		



Hona hemen Pelloziriren bokatarik gustukoena: tomatea, txanpinoia, arrautza, urdaiazpikoa, gaineko ogi zatia eta azpiko ogi zatia. Lagunei ere eskaini nahiko lieke, baina zenbat ogitarteko osa ditzake?



ASKARIA



Bizkotxo zopa?!

Bai harrigarria! Neska-mutilok txokolatezko bizkotxo egin nahi lukete, eta horretarako behar duten guztia, tresnak eta osagaiak, zopa honetan daude, aizu. Ea aurkitzen dituzun.





Erabaki eta Margotu



Zer da hau, pizza ala tarta zati bat? Pizza baldin bada, marraztu iezazkiozu zure gogoko osagaiak. Tarta zati bat baldin bada, apaindu munduko gustagarriena izan dadin.

Zu bai Hamalau!

Ez dakigu zer prestatu duen Maripurtzilek, eta zer dakarren estalki horren azpian. Nolanahi dela ere, bi irudien artean bada aldea. Zehazki esanda, hamalau diferentzia daude, ikusten al dituzu?



Itzala

Zein da Pelloziriren (ondoko orrian) itzal zuzena?



Osa itzazu lauki zuriak, arrautza frijituaren gaineko domino zati honek zentzua izan dezan.

DOMINOAN



Blues Hotsak jaialdia

BOST MUSIKA KONTZERTU ETA LIBURU AURKEZPEN BAT AZAROAN

Azaroko azken bi asteburuetan zehar, Blues Hotsak Jaialdiaren bigarren edizioa egingo da herrian, Errabal Jazz elkarteak antolatuta. Blues estiloa ardatz duten, baina musikalki oso ezberdinak diren lau talde izango dira antzokian. Tarteetan, liburu aurkezpen bat eta herriko musikarien kontzertuak ere bai. "Euskal Herriko zaletuak erakartzeko" pentsatutako luxuzko programazioa da, egoera dela eta, behar bada, soraluzetarrek eta inguruko herrietakoek bakarrik gozatu ahalko dutena. Sarrerek Iratxo goxodendan eskuratu ahalko dira azaroaren 7tik aurrera.

ZAPATUA 21 · GISELE JACKSON & THE SHU SHU'S



Musika beltzaren tradizioa
Kantari afroamerikar ezaguna da Jackson, soul estiloan diharduena. AEBetako jazz klub nagusietan abestu du eta bakarlari moduan hogeitamar herrialde baino gehiago zapaldu ditu Amerikan, Asian, Europan eta Afrikan. Soraluzera, Bartzelonatik etorriko da zuzenean, Europan zehar egiten diharduen biraren barruan.
Herri Antzokia, 19:00etan.

DOMEKA 22 · MUSIKA ESKOLAKO KONBOAK ETA DAMA BELTZAK

Herriko musikarien momentua

Musika eskolako musikari helduenen lana ezagutzeko unea izango da eta eskolak musikalki formatzeko eskaintzen duen aukera bergogoraziko du.
Herri Antzokia, 13:00etan.

Ahots beltzetan barrena...

Dama Beltzak emanaldiak bost emakume beltz kantariren bizitzak ditu ardatz: Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin. Estitxu Pinacho kantariak euren abestiak interpretatuko ditu eta horrekin batera, euren bizitzaz Leire Canok espresuki idatzitako testuak ere errezitatuko dituzte. Modu horretan,



mugimendu musikal eta sozialaren erreginak izan ziren emakumeen borroka gogoratuko dute, emozioz

betetako saio goxo eta intimistan, euskaraz.
Herri Antzokia, 19:00etan.

ZAPATUA 28 · TRAVELLIN' BROTHERS



EHko blues talde esanguratsuen

Leioako seikotea. 2015ean, European Blues Challenge-k Europako blues talderik onena izendatu zuen. Harrezkero, nazioarteko jaialdirik onenetan jo dute. Taldeak harreman estua du Gaztelupeko Hotsak disketxearekin, iraganean lau disko argitaratu zituzten eta. Une honetan, azken albuma 13th Avenue South aurkezteko biran dabilta. Azken lan hau Nashvillen grabatu dute, countryaren sorleku eta aberrian, eta Soraluzen aurkeztuko dute. Bluesa, soula eta rock&rolla uzartzeko zuzenean.

Herri Antzokia, 19:00etan.

DOMEKA 29 · AMPARO SANCHEZ



La niña y el lobo liburu autobiografikoa

Amparo Sanchezek, batez ere Amaparanoia proiektuagatik ezagutua den kantariak, La niña y el lobo bere azken disko-liburu proiektua aurkeztuko du Soraluzen (liburua eguerdian eta diskoa iluntzean), Victor Iniesta guitarrista ondoan hartuta. Istorio autobiografikoa kontatzen du. Indarkeria matxista ardatz duen istorio basati, urratzaile eta pertsonala. Liburuak hirugarren




argitaraldia du eta oraingoan liburuari soinu banda propioa erantsi dio hamar bertsiorekin, besteak beste: Radio Futuraren Han caído los Dos, Mano Negraren Mala Vida. Los Lobosen La pistola, Armando Manzaneroren Adoro...
Herri Antzokia, 12:30ean.

Flamenko airea

Kontzertuan, 2019ko Hermanas musika lana ere aurkeztuko du, latindar eta flamenko airea duena, nahastuz chacarera eta tanguilloak, jarochoa eta granainak, bluesa eta boleroak, rumba eta rancherak.
Herri Antzokia, 19:00etan.

Liburu bat irakurri eta oparitu nahi?

Zabalik dago Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoan parte hartzeko epea.



Euskarazko liburuen muestra liburutegiko mahaian.

“Zurekin oroitu naiz” lemapean, irakurritako liburu bera lagun bati oparitzea da aurten Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoak proposatzen duena. Liburutegira joan, liburu bat maileguan hartu eta irakurri ondoren irakurleak fitxa batean mezu bat idatzi beharko du

opari eman nahi dion lagunarendako. Gero, fitxa bete duten parte-hartzaileen artean, 500 liburu zozketatuko dira, Soraluzen e-book bat ere bai.

Aurten, gainera, Uxue Alberdik eta Aingeru Epaltzak gomendatutako liburuen zerrenda ere kontsuluta daiteke.

Aldaketak ordutegietan

Udaleko Kultura sailak jakinarazi du, alarma egoera dela eta, datozen asteetan Ostegunetako pelikulak arratsaldeko 19:30etan eskainiko dituztela: Intemperie azaroaren 5ean eta Mujercitas azaroaren 19an. Bestalde, oraingoaz, Herriko Antzokiko aforoak erdira murriztuta jarraituko du, 100 ikusle ingururendako lekuarekin.

Trabajos de interior antzezlanak

Azaroaren 13an, Behibis konpainiak Trabajos de interior poltsikoko antzezlanak taularatuko du Herriko Antzokian. Antzezlanak emakume nihilista batek bere barnea ezagutzeko egiten duen bidaia kontatzen du. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da. Sarrera 3 eurotan izango da salgai.

Ikusle ilada Antzokirako

Herrian antolatutako diren azken bi kultur emanaldiek, Ez da kasualitatea bertso musikatuaren emanaldiak eta Losers antzezlanak, sekulako arrakasta izan dute. Bietara jende asko hurreratu da herritik zein inguruko herrietatik. Irudian, ikusle ilada Losers antzezlanaren bigarren sesioa ikustera sartzeko zain.



Ikusle ilada antzokira sartzeko zain.

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Plazentziar jatorriko txakolina

LUIS JABIER OREGIK URKIZAHAR TXAKOLINA EKOIZTEN DU BEIZAMAN

TESTUA EGOITZ UNAMUNO
ARGAZKIAK: LUIS JABIER OREGI.

Luis Jabier Oregi Iñurrieta (Soraluze, 1963) Beizaman bizi da Urki Zahar baserrian, eta izen bereko txakolina ekoizten du. 2005ean abiatu zuen txakolina egiteko proiektua, aita zenak tentatuta: “Aita etorri zen batean, baserri inguruko zelaiei begiratu eta zera bota zigun: ea zergatik ez genuen inguruko lurretan txakolina ekoizten. Hasieran barre egin nion, baina gero jakin nuen bazela mahats

landareak ekoizten zituen mintegi bat eta bertara jo nuen landare eske. Han, ordea, esan zidaten Getariako sor-markarako bakarrik ekoizten zutela eta ni horrekin harritu egin nintzen. Oztopo asko topatu nituen txakolina ekoizten hasteko eta horrek are gogo handiagoa piztu zidan aurrera egiteko. Esan zidaten Oñatin Juan Zelaiak eta beste batzuek bazihardutela txakolina ekoizteko elkarte bat sortzeko ahaleginean eta eurengana jo nuen”.

Handik aurrera, Oñati eta Arrasateko beste ekoizle txiki batzuekin batera abiatu zuen txakolina ekoizteko baimena eskuratzeko borroka, eta hiru urte geroago, 2008an, eskuratu zuen baimen hori, Getariako sor-markapean. Orduan landatu zituen mahatsondoak Beizamako lurretan eta lau urte beranduago, 2012an jaso zuen lehen mahats uzta.

Hasierako urteetan, mahatsa Zarautz eta Getariako bodegetara eroan behar izan zuen, baina 2016az geroztik,



Luis Jabier Oregi eta Igone Arruti Urkizahar baserriko mahastian. UROLA KOSTAKO HITZA.

Beizaman bertan ekoitzi zuen txakolina, etxetik gertu eraiki zuten bodegan.

Modu ekologikoan

Luis Jabierrek garbi zuen ez zuela gai kimikorik erabili nahi eta txakolina modu ekologikoan ekoiztearen alde egin zuen apustu. Ondorioz, ezkoizpenari dagokionez, uzta bakoitzean, modu konbentzionalean ekoizten duten bodegekin alderatuta, bataz beste, %70a gutxiago jaso izan du. "Gure urteko produkzioa, 6.000-7.000 botilakoa izaten da baina gora behera handiak izaten dira. 2017koa, esaterako, oso urte ona izan zen eta 11.000 botila ekoitzi genituen, baina aurren, ez gara 3.000 botilara iritsiko. Orain, badihardugu mahatsa babesteko teknika berriak probatzen baina ekoizpen

ekologikoari trabak besterik ez dizkiote jartzen eta zaila da aurrera egitea".

Maila goreneko jatetxeetan

Ekoizpena kantitatez horren mugatua izanik, Urki Zahar bodegak kalitatearearen alde egin du, eta gaur egun maila goreneko txakolin eta ardoekin lehiatzen da. "Gure merkatua jatetxeetan dago eta zorte handia izan dut gure txakolina inguruotako jatetxerik onenetan eskaintzea lortu dugulako: Arzak, Berasategi, Elkano...". Horrez gain, Estatu Batuetara ere esportatzen dute txakolina. "Lortu dugu txakolina prestigiatzea eta bide berri bat zabaltzen dihardugu. Zati bat kanpora saldu dugu eta horri esker salbatu dugu urtea, baina gure lehentasuna hemen saltzea da. Horregatik sartu

gara euskal ardoen Biba Ardoak kooperatiba sortu berrian ere".

Gaur egun, Urkizahar bodegak bi txakolin mota ekoizten ditu; bata, arrunta altzairuzko upelean ondutakoa, botilako 10 eurotan saltzen dutena; eta bestea, berezia, haritz egurrez egindako barrikatan ondua dena, botila 19,5 eurotan saltzen dutena. "Apustu horixe egin dugu eta ondo ari gara saltzen. Satisfaziorik handiena da emaitzak ikusten hasi garela eta penarik handiena nire aita ez dela bizi hau ikusteko".


Urkizahar txakolina erosi nahi duenak Urkizahar.eus webguneko dendaren bitartez eros dezake, eta horrez gain, bisitan joan nahi izanez gero, horretarako aukera ere eskaintzen dute, hamar lagunetara arteko taldeentzako.



Mahatsa bodegara sartzen.



Urkizahar markako txakolinak.



Urkizahar baserria eta mahastia.



Plazentziako berbalagunen bisita.



Mahats adarrak batzen astoarekin.



Txakolina ekoizten duten bodega.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz
Irailaren 4an eta 23an 9 eta 5 urte. Zorionak bikote!! Segi gure bizitzak alaitzen. Patxo handi bana etxekuen partez.



Alaia Martinez Fariñas
Urriaren 31an 2 urte. Zorionak maitxia! Jarraitxu zure abestixekin gure bizitzak alaitzen! Patxo handi bat guztion partez!



Ekain Ariznabarreta Jauregi
Urriaren 19an 8 urte. Zorionak Ekain! Zure aitxita-amama, izeba-osaba, Irati, guraso eta Kalan partez!!!! Segi beti bezain jator!!



Mikel Gallardo Ariznabarreta
Urriaren 29an 6urte. Zorionak gure etxeko saltseruari Asko maitxe zaitxugu. Etxekuen partez!!!



Unax Sodupe Ostolaza
Urriaren 29an 15 urte. Zorionak Unax!!! Ondo pasa zure eguna eta aupa erreal!



Maia Unamuno
Irailaren 10ean 10 urte. Zorionak! Zelako haundi eta ederra zaran! Segi gozatzan. Etxekuak

JAIOBERRIAK



Aina eta Lea Oregi Jacas
Uztailaren 22an jaio ziren.



Jon Ruiz Armendia
Abuztuaren 27an jaio zen.

JAKINGARRIAK



Udako argazki lehiaketako saridunak

Angel Garcia eta Enara Garitano izan dira aurtengo Udako Argazki Lehiaketako saridunak. Lehen saria eskuratu du Angel Garciak, Txurruka jatetxean otordua. Familian joan eta gustura asko bazkaldu zuten. Bestalde, Herritarren saria eskuratu zuen Enara Garitanok. Hark Egotzako gazta ederra eraman du opari.

JAKINGARRIAK



Lankideen agurra

Alazne Mugika Mugika erizainak irailean hartu zuen erretiroa, Soraluzeko Anbulatorioan. Lankideek merezitako agurra egin zioten eta oroitzapenerako argazkia ere atera zuten elkarrekin, nahiz eta ezohiko egoeran atera behar izan.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Maria Luisa Martin Lorenzo
Santiago Alberdi Bolunburu

Jaiotakoak

Aina Oregi Jacas
Lea Oregi Jacas
Mishal Riaz Ahmed Kousar
Jon Ruiz Armendia

** Uztailean eta abuztuan jaio ziren eta akats batengatik, irailean ez ziren argitaratu.*





#nikizenaemandut

15 EGUN EUSKARAZ
Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

eman izena
euskaraldia.eus